

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, ERAKUNDE HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN SAILA

Euskara Zerbitzua

2025-2026 Ikasturtean euskara ikasi duten herritarrentzako Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiaren oinarriak

2026ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2025-2026 ikasturtean herritarrei euskara ikasteko dirulaguntzak emateko Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiaren oinarriak. Deialdia argitara ematen da, denek izan dezaten horren berri, hala xedatzen baitute Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, lege horren Erregelamendua onesteko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrak —zein 2023ko uztailaren 28an ALHAOn (88 zenbakia) argitaratu baitzen—.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 20an

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduak (887/2006 ED, uztailaren 21ekoa), eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren bidez (aurrerantzean, dirulaguntzen ordenantza orokorra). 2023ko apirilaren 21eko udalbatzak onartu zuen hasieran ordenantza hori, eta 2023ko uztailaren 28an argitaratu zen ALHAOn, Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzak emateko prozedura arautuko duten oinarri orokorrak ezartzeko.

Deialdi honetara aurkeztu nahi dutenek dirulaguntzen ordenantza orokorrera jo beharko dute, oinarri hauetan arautzen ez denaren berri izateko.

1. Dirulaguntzen ildoak

Dirulaguntza hauek Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027) jasota daude, eta beren helburu estrategikoa da Vitoria-Gasteizko biztanleei euskara ikasteko erraztasunak ematea. 2025eko urtarrilaren 17ko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zen plana eta otsailaren 21ean planaren aldaketa onartu zen.

2. Deialdiaren xedea

2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak ematea. 2025eko uztailetik 2026ko ekainera bitartean egindako ikastaroetarako emango dira dirulaguntzak. 2025eko ekainean hasi eta uztaillean amaitu ziren ikastaroetarako ere emango dira dirulaguntza hauek.

Udaleko Euskara Zerbitzuaren 2026ko 0171.3351.48001 aurrekontu-partidaren kontura ordainduko dira laguntza horiek. Guztira, 150.000,00 euro izango dira horretarako.

3. Dirulaguntzaren xede izango diren ikastaroen ezaugarriak

1. HABEk —Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea— onetsitako zentroek ematen dituzten ikastaro homologatuetarako izango dira dirulaguntzak, aurrez aurrekoak, urrutiko aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz mistoak izan.

2. Aukeratzen den ikastaroak —aurrez aurrekoa, urrutiko aurrez aurrekoa, autoikaskuntzakoak nahiz mistoa izan— gutxienez 80 orduko iraupena izan beharko du. Ez dira onartuko udalak berak antolatutako ikastaroak (gurasoentzako ikastaroak, 55 urte baino gehiagokoentzakoak, merkatari eta ostalarientzakoak eta Aisa ikastaroak), ezta Hizkuntza Eskola Ofizialekoak ere. Halaber, ez dira onartuko A1 mailako ikastaroak.

3. Ez dira materiala eta tituluak diruz lagunduko. Barnetegi programei dagokienez, ikastaroaren kostua soilik lagunduko da diruz; ez dira ostatua eta mantenua barne hartuko.

4. Onuradunak

Deialdi honen bitartez bi programa arautzen dira: arrunta, herritar orori zuzendua, eta berarizkoa, kolektibo jakinetako kideei zuzendua. Betebehar hauek bete beharko dira:

Bi programetarako betebehar orokorrak:

1. 16 urte baino gehiago izatea. Behin 2025-2026 ikasturtea hasi ondoren betetzen badira urteak, momentu horretatik aurrerakoari dagokion dirulaguntza baino ezingo da jaso.

2. Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea 2025eko uztailaren 1etik eta ikastaroak dirauen bitartean.

3. Ikastaro bakoitzean, gutxienez ehuneko 80ko bertaratzea.

4. Berdintasunerako eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko bereizkeriarik ezerako eskubidea urratzeagatik zehapen irmorik edo administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenik jaso ez izana.

5. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa) edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzea.

Programa bakoitzari dagozkion eskakizunak:

Programa arrunta, herritarrei, oro har, zuzendua.

Berariako programa honako hauei zuzenduta dago: gurasoak; aisialdiko begirale eta zuzendariak; jantokietako eta autobusetako begiraleak; eskola-kiroleko zuzendari, epaile, entrenatzaile edo begiraleak eta horretarako ikasketak egiten ari direnak, eta hiriko merkataritzako edo ostalaritzako langileak. Eskakizun hauetakoren bat bete beharko dute eskatzaileek:

- 2014tik aurrera (urte hori barne) jaiotako haur baten aita, ama edo tutore izatea.
- 2025-2026 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari gisa lan egitea.
- 2025-2026 ikasturtean jantokietako edo autobusetako begirale gisa lan egitea.
- 2025-2026 ikasturtean eskola-kiroleko zuzendari, epaile, entrenatzaile edo begirale gisa lan egitea.
- Aipatutako titulazioetako ikasketak egiten aritzea 2025-2026 ikasturtean.
- 2025-2026 ikasturtean hiriko merkataritzako edo ostalaritzako langilea izatea.

5. Programa arrunta, herritarrei, oro har, zuzendua

Aurkeztu beharreko agiriak:

- a. Eskabide-orria (1. eranskina).
- b. Egindako banku-ordainketa guztien ordainagiriak.
- c. Beste erakunde batzuei helburu bererako eskatutako dirulaguntzei buruzko aitortpena, edo, eskuratu badira, horien zenbatekoari buruzkoa.

6. Berariazko programa

1. Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte guztiek:

a. Eskabide-orria (1. eranskina).

b. Egindako banku-ordainketa guztien ordainagiriak.

c. Beste erakunde batzuei helburu bererako eskatutako dirulaguntzei buruzko aitortpena, edo, eskuratu badira, horien zenbatekoari buruzkoa.

2. Eskabidea gurasoentzako programaren barruan aurkezten badute, familia-liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko dute, edo, 2021eko maiatzetik aurrera, Erregistro Zibilak igorritako dagokion agiria.

3. Eskabidea begirale, zuzendari edo entrenatzaileen programan aurkezten badute, agiri hauetako bat aurkeztu beharko dute:

a. Matrikula-ziurtagiria, eskatzailea —2025-2026 ikasturtean— horretarako ikasketak egiten ari dela adierazten duena.

b. Begirale-, entrenatzaile- edo zuzendari-titulua, eta 2025-2026 ikasturtean zerbitzua ematen den enpresaren edo erakunde ofizialaren egiaztagiria.

4. Eskabidea merkataritza eta ostalaritzako programaren barruan aurkezten badute, kontratua edo merkataritza-establezimendu batean lan egiten dutela —edo 2025-2026 ikasturtean lan egin dutela— egiaztatzen duen beste agiriren bat.

7. Eskabideak aurkezteko modua eta epea

Bi eratan aurkeztu daitezke eskabideak:

1. Online, udalaren webguneko eskabidea bete eta erregistro elektronikoa erregistratu behar da aurkeztu beharreko gainerako dokumentuekin batera. Horretarako, udalaren egoitza elektronikoa onartzen duen ziurtagiri digitaletako bat eduki behar da.

2. San Antonio kaleko herritarrei laguntzeko bulegoan nahiz gizarte-etxeetakoetan, leku horietan bertan banatuko diren inprimakiak baliatuz eta eskatzen diren agiriak erantsita.

Aurkezteko epea: 2026ko ekainaren 30era arte.

8. Ebaluatzeko, izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna

Instrukzio organoak (Euskara Zerbitzuak) kide anitzeko organo baten bitartez egingo du dirulaguntzak emateko proposamena. Kide anitzeko organo horrek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako eskaerak, oinarri hauen 5. atalean ezarritakoarekin bat.

Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua arabera, hiru kidek osatuko dute delako organoa: Euskara Zerbitzuko buruak (Rakel Romero) edo ordezkari izendatzen duenak eta Euskara Zerbitzuko bi teknikari (Maddalen Amurrio eta Mertxe Berasategi).

Ebazpena egiteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da, eta Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzen dio deialdia ebazteko eskumena.

9. Laguntza emateko prozedura eta dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzea

Dirulaguntza emateko prozedura hainbanaketa izango da.

Aurrekontu-partidaren zenbatekoa (150.000,00 euro) onartutako eskabide guztien artean banatuko da, diruz lagundu daitezkeen ikastaroen matrikula gisa ordaindutakoaren arabera, beste erakunde batzuen dirulaguntza kendu ondoren. Berariazko programek ehuneko 20 gehiago jaso ahal izango dute gehienez. Dirulaguntzaren zenbatekoa, beste edozein erakundetatik jaso ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin batera, ezin izango du inolaz ere matrikularen zenbatekoa gainditu.

Ezin izango dira onuradun izan zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak.

10. Ebazpena argitaratzea

Dirulaguntzei buruzko ordenantzaren 24. artikulua ezarritakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak ALHAOn eta udaletxeko ediktu-oholean egingo dira. Era berean, ebazpena eta zerrendak San Antonio kaleko eta gizarte-etxeetako herri-tarren arretarako bulegoetan eta euskaltegietako idazkaritzetan argitaratuko dira, adierazitako egunetan:

— Instrukzio organoaren behin-behineko ebazpen proposamena: 2026ko urriaren 9an. Onartutako eta ezetsitako eskabideen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, baita dokumentazioa osatu behar dutenena ere. Hamabost egun balioduneko epea emango da, zerrendak argitaratzen diren egunaren —urriaren 9a— biharamunetik, erreklamazioak aurkezteko edo dokumentazioa aurkezteko. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, eskatzaileak eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko da eta ebazpena emango da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Adierazitako epearen barruan erreklamaziorik egiten ez bada edo eskatutako agiriak aurkeztu ez badira, onartutako eta ezetsitako eskabideen behin-behineko zerrendak behin betikotzat izatera pasako dira. Erreklamaziorik egin edo agiri osagarriak aurkeztuz gero, horiek aztertu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, 2026ko azaroaren 13an argitaratuko da onartu eta bazter utzitako eskabideen behin betiko zerrenda.

— Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena: 2026ko azaroaren 13an.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpenak agortu egingo du administrazio-bidea, eta horren aurka dagozkion errekursoak jarri ahal izango dira.

11. Ordaintzeko modua

Behin betiko ebazpena onartu ondoren eta gastua oinarri hauetako 5. eta 6. ataletan adierazitako moduan zuritu ostean egingo da ordainketa.

12. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Dirulaguntzak —interesdunak beste edozein erakundetatik jasotzen dituenak gehitzen zaizkiolarik— ezingo du gainditu matrikularen zenbatekoa. Hala gertatuz gero, modu proportzionalan murriztuko da emandako dirulaguntza, deialdi honen ildotik.

13. Datuak egiazkoak ez izateaz

Eskabidean eman beharreko datu guztiak ez emateak edo daturen bat nahiz eransten diren agirietakoren bat faltsu izateak eskabidea baliorik gabe uztea ekarriko du berekin, eta eskatzaileen gain eroriko dira erantzukizunak.

14. Bestelako xedapenak

Prozedurari buruz oinarri hauetan arautu gabekoei dagozkienetan, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: dirulaguntzen ordenantza orokorra, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

SCEU_001

Euskara-ikastaroetarako Gasteizko Udalarir dirulaguntza eskatzeko orria

Solicitud de subvención del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para cursos de euskera

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila
Departamento de Alcaldía, Relaciones Institucionales e Igualdad

Tel.: 945 161 522 / 945 161 693
informacion@vitoria-gasteiz.org

Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera

IKASLEAREN DATUAK – DATOS DE LA PERSONA ESTUDIANTE

Izen-deiturak – Nombre y apellidos

1. abizena Apellido 1	2. abizena Apellido 2		
Izena Nombre		NAN/IAZ DNI/NIE	

Helbidea – Dirección

Kalea Calle		Zenbakia Número		Letra Letra		Eskailera Escalera	
Solairua Piso	Atea Mano	Posta-kodea Cód. Postal		Herria Población			
Udalerrria Municipio		Lurraldea Provincia					
1. telefonoa Teléfono 1	2. telefonoa Teléfono 2			Posta elektronikoa Correo Electrónico			

TITULARRAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIOS DE LA PERSONA TITULAR

Finantza-erakundea – Entidad Financiera	IBAN	F.E.Kodea Código E.F.	Bulegoa Sucursal	KZ - DC	Kontu-zenbakia - Número de Cuenta

EGINDAKO IKASTAROK – CURSOS REALIZADOS

Egindako ikastaroen ordu kopurua orotara – Horas totales de los cursos realizados

- > Autoikaskuntzako ikastaroetako orduak - Horas de los cursos de autoaprendizaje (online) (1)
- > Gainerako ikastaroetako orduak - Horas del resto de cursos (1)

(1) Bete beharrekoa / Campo a cumplimentar

Markatu dagokizun laukia – Marque la opción que corresponda

- Programa arrunta – Programa ordinario
- Aisialdia/Kirola/Jantokiak/Autobusak – Tiempo libre/Deporte/Comedores/Autobuses
- Gurasoa – Padre o madre
- Merkataritza / Ostalaritza – Comercio / Hostelería

AURKEZTEN DIREN AGIRIAK - DOCUMENTACIÓN QUE SE PRESENTA

Programa arrunta – Programa ordinario

- Matrikula-sari gisa euskaltegiari egindako ordainketaren banku-agiria
Duplicado del ingreso bancario realizado a la academia en concepto de matrícula
- Beste erakundeei helburu bererako eskatutako dirulaguntzei buruzko aitortpena, edo, eskuratu badira, horien zenbatekoari buruzkoa.
Declaración sobre subvenciones solicitadas a otras instituciones para el mismo fin o sobre el importe de dichas subvenciones, en caso de que se hubieran percibido.

Berriazko programa – Programa específico

- Familia-liburuaren fotokopia
Fotocopia del libro de familia
- Begirale-, entrenatzaile- edo zuzendari-titulua eta zerbitzua ematen den enpresaren edo erakunde ofizialaren egiaztagiria, edo ikasketa horiek egiten ari dela egiaztagizko matrikula-ziurtagiria.
Título de monitor/a, entrenador/a o director/a y certificado de la empresa o institución oficial donde preste sus servicios, o certificado de matrícula de estar cursando dichos estudios.
- Kontratu edo merkataritza-establezimendu batean lan egiten dela edo lan egin dela egiaztatzen duen beste agiriren bat.
Contrato u otro documento que acredite estar o haber estado trabajando en un establecimiento comercial.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA – PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

- > Ekainaren 30era arte - Hasta el 30 de junio.

BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU – DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD

- > Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela.
- > Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren art. 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.
- > Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.
- > Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 10/10/2024



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

SCEU_001

Euskara-ikastaroetarako Gasteizko Udalarir dirulaguntza eskatzeko orria
Solicitud de subvención del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para cursos de euskera

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila
Departamento de Alcaldía, Relaciones Institucionales e Igualdad

Tel.: 945 161 522 / 945 161 693
informacion@vitoria-gasteiz.org

Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO – AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

ADIERAZI HEMEN – MARQUE AQUÍ

Konkurrentziatik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera. *Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41.*

Dirulaguntzen Udal Ordenantzen 6.2 artikuluekin bat etorri, **Udalak ofizioz eskatutako ditu eskatzaileen nortasun-datuak, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.** *De conformidad con el artículo 6.2 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, el Ayuntamiento consultará de oficio los datos de identidad de las personas solicitantes a través de la Dirección General de la Policía.*

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1 d) artikuluan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.3 artikuluan eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan arabera, **Udalak ofizioz eskatuko du Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.** *De conformidad con el artículo 92.1 d) de la Norma Foral General Tributaria de Álava, artículo 23.3 de la Ley General de Subvenciones y artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, el Ayuntamiento recabará de oficio el certificado de estar al corriente de pago en las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral.*

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan arabera, **Udalak ofizioz eskatuko du Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.** *De conformidad con el artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, la persona solicitante no muestra oposición a que el Ayuntamiento consulte los datos de identidad de la Dirección General de la Policía así como los certificados de estar al corriente de pago con la Tesorería de la Seguridad Social.*

Aurkakotasuna adieraztekoan, adieraz ezazu zergatik:

De mostrar oposición, indique el motivo aquí:

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de Izenpea – Firma

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, jarraian aurkeztu den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta a continuación.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA - INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK - CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto de la Pers. Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba/Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkariren kontaktu datuak <i>Contacto de la Pers. Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-ekumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legearen aurreikusitakoekin bat etorrita. <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza, DBA(Ok) 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaleak <i>Destinatarios</i>	Datuak hirugarren bati komunikatu dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzenean lotura duten xedeak betetzeko–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoel ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a terceras entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatuzko lege ezarritako epeak iraun bitartean. Orobat, gordeko dira interesdunarekiko harremanetatik sortzen diren erreklamazioak bideratu nahiz halakoetan defendatzeko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Era berean, artiboiei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos. Igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, interesdunak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 10/10/2024